Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitul uak	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	17.749.200,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		17.749.200,00

FINANTZAKETA

Kapitul uak	Izena	Zenbatekoa
9 (SARRERAK)	FINANTZA PASIBOAK	17.749.200,00



GUZTIRA	17.749.200,00
----------------	----------------------

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

5. Leitzaran ibaiaren ondoan dagoen pasealekua Andre Gobadagileen pasealekua izendatzeko propoamena.

Andoingo Udala duela hamarkada bat baino gehiagotik ari da emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko jarduerak politikoak bultzatzen, ez garelako benetako komunitate demokratiko baten esparruan biziko, berdintasun hori, legeek aldarrikatzen dutenaz haratago, eraginkorra egiten ez dugun bitartean.

Enpleguko diskriminazioarekin edo familia- eta lanbide-erantzukizunen banaketan dagoen orekarik ezarekin lotutako egoeretan genero-desberdintasuna onartzen dugu, baina zailagoa da gure egunerokotasuna garatzen dugun agertokietan antzematea. Toponimia da horren adibide. Gizonezkoen toponimo ugari daude, eta Andoainen bost kale eta plaza publikok baino ez dituzte emakumeekin lotutako izenik.

Andoingo kale-izendegian eta, oro har, bizi garen hiri eta herrietan emakumezko izen gutxi egoteak erro historiko sakonak dituen gizarte-egoera bati erantzuten dio; izan ere, mendeetan zehar, emakumeak, haien presentzia, ekarpena eta lana ikusezin bihurtu dira, maila guztietan. Horrela, historian zehar emakumeak familiaren eta zaintzaren barruan zeregin nagusi batera baztertu dira, eta bizitza publikoarekin lotutako jarduerak egiteko aukera ukatu zaie: politika, artea, kultura edo zientzia. Beraz, kaleen izenen arteko desberdintasuna sexuen arteko desberdintasun historikoaren isla da, non espazio publikoa gizonek diseinatu duten, batez ere une historiko desberdinetan botere ekonomiko, politiko eta erlijiosoa zutenek.

Kaleen izenak tresna garrantzitsuak dira hiriak pertsona edo erreferentziatzko kolektiboak oso modu ikusgarrian ezagutu ahal izateko. Azken urteotan, genero-ikuspegia duten berdintasun-politiken eta hirigintzaren harira, emakumeen izenak sartzen ari dira kale-izendegietan, batez ere kale eta plaza berriak izendatuz, baita orain arte izenik ez zuten espazio publikoetan ere. Andoainen, Algodonerako Emakumeen Plaza da horren adibidea, espazio publiko berri batean emakumeek gure udalerriko industria-hazkundera egin zuten funtsezko ekarpena aitortzen duena. Ildo berean, duela bi urte, “Plaza Morea Andreurdiñarena” izendatu zen ordurarte izenik ez zuen espazio publiko bat. Beraz, kale izendegia, genero ikuspegitik, orekatua izan dadin hainbat urrats ematen ari dira azken garaian.

Hala ere, ildo horretan aurrera egiten jarraitu behar da, eta gure udalerrian emakumezkoen izenak kaleetan eta espazio publikoan presentzia areagotzeko asmoz, proposamen hau egin da.

Udalerrian espazio publiko bat izendatzea proposatzen da, gaur egun izen ofizialik ez duena, zehazki, Santa Krutz eta Kale Berriari segida ematen dion zubiaren artean, Leitzaran Ibaiaren ertzetik doan pasealekua. Jon Unanuek 2023an egindako *Leitzaran ibaiaren gainean, kale berriak kokaturiko zubiaren izena* txostenean aipatzen duen moduan “(Kale Berriaren) zubiaren eta Santa Krutz zubiaren arteko ibai-tartea, herriarentzat zerbitzugune izan da mendeetan, bereziki, gobada edo lixiba bertan egiten zuten auzoko emakumeentzat, bertako latsarrietan jo eta ikuzten baitzuten gobada –gobara andoaindarrentzat–, eta gaur egun hori dira, oraindik agerian, azken latsarriak Oria ibai ertzean, Gurutze Santuaren elizatxoaren oinean. Horren arabera, aukera litzateke ere –baina guztiz berria, inongo ohiturarik gabea– Gobaragileen zubia edo Gobaragile zubia deitzea, mendetan ikuzte lan gogorra egin zuten emakume haien omenez”.

Beraz, landutako izendapen hau berreskuratzea egokia ikusten dugu, eta aipatutako pasalekuari Izendapen hori emateko proposamena egiten dugu txosten honetan, zehazki, **Andre Gobaragileen pasealekua** izango dena, eta ariketa honekin honako helburu hau bete nahi dugu: Emakumeek mendeetan ugalketaren eta zaintza-lanen esparruan egin duten ezkutuko eta baloratu gabeko lana aitortzea. Lan horiek oinarritzekoak dira gizakiaren eta gizarte-taldeengatik ongizaterako eta mantentzerako, eta aldiz, ez dute izan eremu publikoan inongo aitortzarik, eta ordainsaririk edota balio sozialik ere.

Izendapen honekin, Andoain inklusibago baten eraketan urrats berriak eman eta bultzatu nahi dira,



bere espazio publikoetan berez, bere kaleetan dagoen aniztasuna jaso eta islatuko duena. Aitortu ditzala emakumeen, izan zirenen, direnen eta izango direnen ekarpen eta borroka desberdinak, gure udalerrira begiratzean bertan bizi eta beraien burua aitortua ikusi ahal izateko.

Hori guztia ikusirik, eta 1690/1986 Errege Dekretuaren, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duenaren 75. artikuluari eta 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoari jarraik.

Ikusirik, Herritarren Informazio-Batzorde Iraunkorraren 2025/09/18 datako irizpena.

Ikusirik, Berdintasun Zinegotzi Ahaldunaren 2025/09/22 datako proposamena, zeinaren bidez, Herritarren Informazio Batzordearen irizpen zuzentzea proposatzen da Andre Gobaragileen ordez, Andre Gobadagileen izendapena hobetsiz, Euskara Lansaileko Teknikariak 2025/09/22 datan egindako txostenari jarraiki.

Idazkari jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gai honi lotuta, aipatu behar da Herritarren Batzordeak dagokion irizpena eman zuela eta ondoren aurkeztu dela irizpen hori aldatzeko proposamen bat, zuzenketa edo emendakin bat izango litzatekeena.

“Herritarren Batzordeko deialdia egin ondoren, Euskara Sailak dagokion kontsulta egin zuelako Euskaltzaindiarekin eta Euskaltzaindiak gomendatu du “Gobaragileen” jarri beharrean, “Gobadagileen” jartzea. Espedientean aurkitzen da zuzenketa, idazki hori eta baita ere Euskara Sailaren txostena, beraz, lehendabizi bozkatu beharko litzateke zuzenketa hori eta onartuko balitz zuzenketa, jarraian bozkatu beharko da, jatorrizko proposamena aldaketa hori sartuz.”

Jarraian, Barandiaran andreak, Emakume eta Gizonen Berdintasuna Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kale izendegiarekin zerikusia duten bi proposamen dakarzkigu udalbatzarrerara.

“Andoingo kale izendegian emakumezko izen gutxi dago eta hori bueno, ba uste dugu, gizarte egoera historiko baten ondorio dela. Kale izendegia tresna garrantzitsua da pertsonen eta erreferentziatzko kolektiboek ikusgarritasuna emateko, aitortza egiteko eta baita erreparaziorako, beraz, berdintasunean urrats berriak emateko asmoz egiten dira proposamen hauek eta lehenengoa, Andre Gobadagileen pasealekua litzateke.

“Gaur egun izen ofizialik ez duen espazio bat izendatzeko proposamena da, Leizaran ibaiaren ertzean, ba mendeetan zehar emakumeek gobada edo lixiba bertan egiten zuten eta proposamena da juxtuki, izen hori berreskuratzeko, emakumeek mendeetan, ugalketaren eta zaintza lanen esparruan egin duten ezkutuko eta baloratu gabeko lana aitortzea da. Betiere espazio publikoan gainera, 2024ko martxoaren 8ko testuinguruan, martxoaren zortziko emakume taldeak jada antolatzen zuten antzerki bat, antzezlan edo gaia aintzat hartzen zuena. Beraz, hori da proposamena.”

Alkate jaunak proposamena eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai. Bueno. Decir que desde el Partido Socialista vamos a apoyar ambos dos puntos. El dar el nombre al paseo del río y al cambio del nombre del puente. Por supuesto, y como no podía ser de otra manera, creemos que hay que seguir dando pasos, ya se inició con la Plaza de las Mujeres de la Algodonera, se siguió con Plaza Morea y hay que seguir dando pasos en este sentido. Así lo dijimos también hace casi dos años, en la comisión del 20 de noviembre de 2023 de Euskera, cuando desde el equipo de gobierno se nos trajo esta misma propuesta, hace dos años, bueno una idea, no teníais claro si cambiar el nombre del puente porque tenía un pasado franquista... Navarra... poner Churrería, Andre Gobaragile... Bueno, al final creo que fue desde el Partido Socialista que os comentamos la idea de que justo en el paseo donde habían existido las zonas de lavandería estaba sin nombre, y se podía explorar eso.

Entonces, pues, bueno, entendemos que está muy bien, y el que se le dé el nombre al puente también, pero sí que no quiero dejar pasar un asunto.

“Entiendo que la concejala de Igualdad, la legislatura pasada no estaba, pero el señor Alcalde sí estaba y en 2022, cuando aquí, en este mismo Pleno se votó el cambio de denominación de la Plaza Morea,



desde EH Bildu, veo que algunos empiezan a sonreír, comentaban y decían y, voy a leer literal. “Nosotros siempre vamos a impulsar este tipo de decisiones, pero, como solemos decir muchas veces, no todos hacemos las cosas de la misma manera, y así os lo manifestamos también en la comisión. Creemos que esta propuesta, poner el nombre de Plaza Morea Andre Urdiñarena, no se ha gestionado bien si se quiere que sea un espacio que promueva la referencialidad de las mujeres, que dé protagonismo a las mujeres, que las mujeres lo sintamos nuestro, ahora que decimos que tenemos que impulsar la participación de las mujeres, en vez de celebrar un proceso participativo, vamos a decidir sin la participación de las mujeres y sin tener en cuenta las opiniones y las propuestas de las mujeres, el lugar y el nombre,”

“Sí, hombre, pues a ver, nos quedamos estupefactos. Sinceramente, nos quedamos estupefactos después de la lección de participación que nos dio aquí EH Bildu hace tres años, de cómo había que hacer las cosas, de cómo hacían ellos las cosas. Dos años después de que el equipo de gobierno nos plantee la posibilidad de ese cambio, nos viene con la propuesta, que nos parece bien, preguntamos si ha habido un proceso de participación de la mujer y se nos dice que no.

“Entonces, pues bueno, es verdad que no todos hacemos las cosas igual, ya lo he dicho antes, depende de dónde estemos sentados, las hacemos de una manera o de otra.

“Por otro lado, también nos gustaría que se avanzase un poco más, que no quedase solo en el cambio de los nombres, sino que se profundizase más, se diese a conocer la historia de Gracia, lo que supuso para este pueblo y la historia y lo que supuso para el pueblo de Andoain las lavanderas que trabajaban ahí.”

Berríro, Barandiaran andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, nik egingo dut prozesu parte hartzaileen inguruko hausnarketa. Bueno, aipatu duzun hori, begira, legealdi honetan uste dut prozesu parte hartzaileetan urrats, esango nuke irmoak eta aztertuak ematen ari garela. Besterik ez dago. Aholkularitza zerbitzua daukagu kontratatuta, eta egiten ari gara edo ikasten ari gara parte hartze prozesuak nolakoak izan behar duten, emaitzak bideragarriak izan daitezten.

“Berdintasun sailean bi proposamen hauekin eta zentratuko naiz bi proposamen hauei dagokienean. Bueno, bi proposamen hauek udal gobernuak proposatzen ditu jada bagenituelako izen horiek, mahai gainean.

“Grazia Garagorriren izena ateratzen da Leizaurren publikatzen den azterketa edo ikerketa batetik, eta erabaki genuen Artxiboarekin batera izen hori bueno ba, erreparaziorako urrats bezela erabili behar genuela.

“Andre Gobadagileena, Euskera sailarekin izan dira lanketak ze bere horretan toponimia erabiltzen da kale izendegi edo zubiei izena jartzeko. Beraz, hor egon da bi sailen arteko koordinazioa.

“Begira, Berdintasun Sailean zerbait egiten badugu da parte hartze prozesuak aktibatu eta adibideak dira Genero Berdintasun Planean egin duguna edo urrian emakumeen etxearen prozesuarekin egitea goazena, baina daude erabaki batzuk. Guk herriari ze galdetuko diogu? Zer egingo dugun bi izen hauekin? Zer galdetuko diegu? Ea ondo iruditzen zaien zubiari eta pasealekuari izen horiek jartzea?

“Hoiek udal proposamenak izan dira, ulertuta berdintasunean urratsak direla. Eta beste datu bat esango dizut, prozesu parte hartzailea bere horretan ez dugu egin, baina esaten dizut kontraste lanak egin ditugula berdintasunean dauden emakume guztiekin. Beraien oniritzia eta begira, zorionak behintzat jaso ditugu.”

Alkain jaunak dio:

“Aquí felicitaciones recibimos todos, pero el pueblo está como está. No me voy a repetir. Si quieres, luego, si el señor Fondón, que ha venido con fuerzas, me deja hablar y no me interrumpe...”

Alkate jaunak dio:

“Errespetua mesedez.”

Jarraitzen du Alkain jaunak:

“Bai, bai. Entonces, pues lo dicho, el cambio de discurso de EH Bildu, dependiendo de dónde se siente, si en el equipo de gobierno o aquí, es completamente diferente. Quiero recordar que en el proceso de Plaza Morea incluso se contrató a una empresa para dinamizar, se consultó... Aun así, les pareció poco,



se abstuvieron. Ustedes se abstuvieron, EH Bildu.

“No estaba usted, pero estaban sus compañeras a las que puede consultar, o el señor Alcalde que estaba presente en este salón de plenos, en la propia comisión, porque no les parecía suficiente. Y entonces hoy aquí es una decisión del equipo de gobierno que están en todo su derecho de tomarlo. Pero no pidan unas cosas en un momento dado y hagan otras en otras, sean coherentes. Pedimos coherencia, coherencia con sus propias, con lo que ustedes piden. Ya está, el procedimiento, lo conocemos, eh. Y los procesos participativos en igualdad también. Lo que estamos pidiendo es coherencia.”

Jarraian, berriro ere, Barandiaran andreak esan du:

“Begira, koherentzia, bueno, baina gauza bat, zoritxarrez, bi izen hauek ere erabilita ere, egongo gara oraindik desoreka batean, beraz, egongo da oraindik espazioa eta denbora prozesu parte hartzaileak abiatzeko. Eta akaso prozesu parte hartzailea izan daiteke Berdintasunarekin lotutako ze izen jarriko diogu kale konkretu bati edo plaza konkretu bati. Baina behin bi izen hauek edukita, hori da planteatu duguna. Horrek ez du esan nahi hurrengoetarako ere, koherentzia osoz, prozesu parte hartzaileak abiatuko ez ditugunik, ze uste dut urratsak ematen ari garela dinamika horietan.”

Jarraian, Usandizaga andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno uste dut, zuk esan dezun bezela, ez zara egia guztia esaten ari, ze aurreko legislaturan egon zan konfusioa eta aipatu dezu Plaza Morea hiru aldiz, baino ez dezu aipatu Plaza Morea-Andre Urdinarena, hori behin bakarrik aipatu dezu. Eta hemen izan zen konfusioa, izan zen bi izen jartzea, Plaza Morea-Andre Urdinarena, toki berberari azkenean izango zala bi izenetako bat erabiltzeko, eta hortik abiatu zan guztia. Ordun, nik uste dut hitz egiten badugu koherentziaz eta prozesu guztia hartu beharko litzakeela kontuan eta ez bakarrik behin aipatutako hitz batzuk.”

Alkain jaunak erantzuten du:

“Bueno, yo creo que usted no ha estado atenta cuando he leído la parte de la intervención de su compañera de EH Bildu, pero bueno, dejémoslo. Dejémoslo ahí. Coherencia obviamente con su discurso, por supuesto.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak, zuzenketa enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, zuzenketa onartzea erabaki du.

Jarraian, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du, aipatu zuzenketaren testua txertaturik, eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du.

LEHENENGOA: Santa Krutz eta Kale Berriari segida ematen dion zubiaren artean, Leitzaran ibaiaren ertzetik doan pasealekua, **Andre Gobadagileen pasealekua** izendatzeko prozedurari hasiera ematea, erabaki honetako eranskinean jasotzen den kokapen geografikoaren arabera.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, 30 laneguneko epean interesdunek espedientea aztertu eta bere kasuan dagozkion iradokizun edo alegazioak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA: Euskaltzaindiari dagokion irizpena eman dezan eskatzea.

6. Kale Berria jarraituz, Leitzaran ibaiaren gaineko zubia Grazia Garagorri zubia izendatzeko proposamena.

Andoingo Udala duela hamarkada bat baino gehiagotik ari da emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko jarduerak politikoak bultzatzen, ez garelako benetako komunitate demokratiko baten esparruan biziko, berdintasun hori, legeek aldarrikatzen dutenaz haratago, eraginkorra egiten ez dugun bitartean. Enpleguko diskriminazioarekin edo familia- eta lanbide-erantzukizunen banaketan dagoen orekarik ezarekin lotutako egoeretan genero-desberdintasuna onartzen dugu, baina zailagoa da gure egunerokotasuna garatzen dugun agertokietan antzematea. Toponimia da horren adibide. Gizonezkoen toponimo ugari daude, eta Andoainen bost kale eta plaza publikok baino ez dituzte emakumeekin lotutako izenik. Andoingo kale-izendegian eta, oro har, bizi garen hiri eta herrietan emakumezko izen gutxi egoteak erro historiko sakonak dituen gizarte-egoera bati erantzuten dio; izan ere, mendeetan zehar,



emakumeak, haien presentzia, ekarpena eta lana ikusezin bihurtu dira, maila guztietan. Horrela, historian zehar emakumeak familiaren eta zaintzaren barruan zeregin nagusi batera baztertu dira, eta bizitza publikoarekin lotutako jarduerak egiteko aukera ukatu zaie: politika, artea, kultura edo zientzia. Beraz, kaleen izenen arteko desberdintasuna sexuen arteko desberdintasun historikoaren isla da, non espazio publikoa gizonek diseinatu duten, batez ere une historiko desberdinetan botere ekonomiko, politiko eta erlijiosoa zutenek.

Kaleen izenak tresna garrantzitsuak dira hiriak pertsona edo erreferentziatzko kolektiboak oso modu ikusgarrian ezagutu ahal izateko. Azken urteotan, genero-ikuspegia duten berdintasun-politiken eta hirigintzaren harira, emakumeen izenak sartzen ari dira kale-izendegietan, batez ere kale eta plaza berriak izendatuz, baita orain arte izenik ez zuten espazio publikoetan ere. Andoainen, Algodonerako Emakumeen Plaza da horren adibidea, espazio publiko berri batean emakumeek gure udalerriko industria-hazkunderan egin zuten funtsezko ekarpena aitortzen duena. Ildo berean, duela bi urte, “Plaza Morea Andreurdiñarena” izendatu zen ordurarte izenik ez zuen espazio publiko bat. Beraz, kale izendegia, genero ikuspegitik, orekatua izan dadin hainbat urrats ematen ari dira azken garaian.

Hala ere, ildo horretan aurrera egiten jarraitu behar da, eta gure udalerrian emakumezkoen izenak kaleetan eta espazio publikoan presentzia areagotzeko asmoz, proposamen hau egin da.

Udalerrian espazio publiko bat izendatzea proposatzen da, gaur egun izen ofizialik ez duena, zehazki, Santa Krutz eta Kale Berriari segida ematen dion zubiaren artean, Leitzarain Ibaiaren ertzetik doan pasealekua. Jon Unanuek 2023an egindako *Leitzarain ibaiaren gainean, kale berriak kokaturiko zubiaren izena* txostenean aipatzen duen moduan “(Kale Berriaren) zubiaren eta Santa Krutz zubiaren arteko ibai-tartea, herriarentzat zerbitzugune izan da mendeetan, bereziki, gobada edo lixiba bertan egiten zuten auzoko emakumeentzat, bertako latsarrietan jo eta ikuzten baitzuten gobada –gobara andoaindarrentzat–, eta gaur egun hori dira, oraindik agerian, azken latsarriak Oria ibai ertzean, Gurutze Santuaren elizatxoaren oinean. Horren arabera, aukera litzateke ere –baina guztiz berria, inongo ohiturarik gabea– Gobaragileen zubia edo Gobaragile zubia deitzea, mendetan ikuzte lan gogorra egin zuten emakume haien omenez”.

Beraz, landutako izendapen hau berreskuratzea egokia ikusten dugu, eta aipatutako pasalekuari Izendapen hori emateko proposamena egiten dugu txosten honetan, zehazki, **Andre Gobaragileen pasealekua** izango dena, eta ariketa honekin honako helburu hau bete nahi dugu: Emakumeek mendeetan ugalketaren eta zaintza-lanen esparruan egin duten ezkutuko eta baloratu gabeko lana aitortzea. Lan horiek oinarritzakoak dira gizakiaren eta gizarte-taldeengizaterako eta mantenturako, eta aldiz, ez dute izan eremu publikoan inongo aitortzarik, eta ordainsaririk edota balio sozialik ere.

Izendapen honekin, Andoain inklusiboago baten eraketan urrats berriak eman eta bultzatu nahi dira, bere espazio publikoetan berez, bere kaleetan dagoen aniztasuna jaso eta islatuko duena. Aitortu ditzala emakumeen, izan zirenen, direnen eta izango direnen ekarpen eta borroka desberdinak, gure udalerrira begiratzean bertan bizi eta beraien burua aitortua ikusi ahal izateko.

Hori guztia ikusirik, eta 1690/1986 Errege Dekretuaren, uztailearen 11koa, Toki Erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duenaren 75. artikuluarri eta 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoari jarraik.

Ikusirik, Herritarren Informazio-Batzorde Iraunkorraren 2025/09/18 datako irizpena.

Barandiaran andreak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Zinegotzi Ahaldunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Grazia garagorri. 1629an Andoainen dokumentatutako indarkeria matxistaren lehen biktimia izan zen bere senarrak erail zuelako. Honek, adierazten digu duela 400 urte emakumeak indarkeria matxistaren biktimia zirela gaur diren antzera. Gure herrian emakumeek jasan dute euren gorputzetan sistema heteropatriarkalaren indarkeria, gaur gaurkoz indarrean jarraitzen duen indarkeria bera. Proposamen honen helburua da Grazia Garagorri ahanzturan ez erortzea eta indarkeria matxistari aurre egin dioten edota egiten ari dioten emakumeen espazio publikoan erreferentzia izatea nahi dugu Grazia Garagorri, memoria historiko demokratikoa berreraikitze eta indarkeria matxisten biktimen erreparazioarako.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri



du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Santa Krutz eta Kale Berriari segida ematen dion zubiaren artean, Leitzaran ibaiaren ertzetik doan pasealekua, **Andre Gobadagileen pasealekua** izendatzeko prozedurari hasiera ematea, erabaki honetako eranskinean jasotzen den kokapen geografikoaren arabera.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, 30 laneguneko epean interesdunek espedientea aztertu eta bere kasuan dagozkion iradokizun edo alegazioak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA: Euskaltzaindiari dagokion irizpena eman dezan eskatzea.

7. Udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako hitzarmenaren luzapena zioarekin Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte politiketako Departamentuareki.

Kontuan hartuz, 2025/09/30ean amaitu zela Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuarekin, udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako hitzarmenaren luzapena zioarekin, sinatutako lankidetzaz hitzarmena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuak lansaileko arduradunak 2025eko irailaren 18an egindako txostena.

Ikusirik, Alkate jaunaren 2025.09.19 datako proposamena.

Idazkari jaunak, hartu du hitza, honako azalpena emateko:

“Hemen esan beharra dago gai hau ez dela dagokion batzordetik pasa, etorri zelako azken momentuan. Gainera, hitzarmenaren luzapenaren indarraldia hasiera izan behar du urriaren batean eta arrazoi horregatik sartu da udalbatzarraren gai zerrendan. Esan bezala, batzordeak dagokion irizpena eman ez duenez, egindako araudiaren arabera lehenbizi egin beharko litzatekeena da gai zerrendan sartzeari berrestea, dagokion presazkotasuna onartu behar delarik.”

Barandiaran andreak, Emakumeen eta Gizonen Berdinatasuneko Zinegotzi Ahaldunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Etxeko laguntza zerbitzuak hainbat finantzaketa iturri dauzka eta horietako bat da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin herri orok egiten dugun hitzarmenetik eratortzen dena. Mendekotasuna duten pertsonen eta laguntza behar duten beste kolektibo batzuei udalerrian ematen zaien etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko behar den zatia litzateke Aldundiarekin hitzartuko duguna.

“Hitzarmen honen epealdia, urriaren 1etik hasita, 2026ko irailaren 30erako epealdia izango du eta bere luzapena da, aurrekoen baldintza berdinetan sinatuko dugu.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian, proposamena bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzarraren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuaren artean sinatutako lankidetzaz hitzarmena berritzeko proposamena onartzea, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: Mendekotasuna duten pertsonen eta laguntza behar duten beste kolektibo batzuei udalerrian ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko foru-hitzarmenaren luzapena

Indarraldia: urtebete.

Noiztik: 2025/10/01

Noiz arte: 2026/09/30

2.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Andoingo udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

3.- Hartutako erabakia Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuari jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, sinatuta.



8. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1922/2025 zenbakidunetik 2330/2025 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 20/2025 aktatik 23/2025 aktara.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatetzaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 1922/2025 zenbakidunetik 2330/5025 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiak, zehazki, 20/2025 aktatik 23/2025 aktara.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkate jaunak, galderak, eskaera eta proposamenak txanda ireki du eta lehenbizi Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, ya siento tener que ser yo, que tenga que ser el Partido Socialista el que entre tantas felicitaciones por lo bien que hace el gobierno municipal las cosas, ponga la nota discordante, pero sí que queríamos traer un tema que nos ha entristecido bastante este año y es de, bueno, desde 2019 se viene celebrando, el Departamento de Servicios Sociales junto con las asociaciones de jubilados de Bertxin y de Santa Cruz, las Jornadas por el Día Internacional del Alzheimer, que se celebran el 21 de septiembre.

“Nos ha entristecido mucho que este año prácticamente no se le ha dado visibilidad. Solíamos hacer un cartel, solíamos buzonear un díptico en las viviendas, porque entendíamos que había que explicar y estar con las familias, con las personas enfermas y con los cuidadores y cuidadoras que están con estas personas y concienciar.

“Este año vemos con asombro que no se ha hecho nada más allá de una película que además coincide justo ahora con con la sesión plenaria y a la que no hemos podido ir. Y, por lo tanto, pedimos disculpas, desde aquí, no podemos ir, porque estamos aquí.

“Incluso se llegaba a trabajar desde el equipo de gobierno o una declaración institucional. Este año no se ha hecho. Por lo tanto, sí que pedimos y rogamos encarecidamente que un gobierno municipal cuyo lema es “Andoain bizitzeko da, Andoain, que te cuida”, que cuide realmente, que trabaje por cuidar a las personas mayores. Porque, pese a que hagan ustedes las cosas tan bien, este es un ejemplo de algo que no está bien hecho y que no se ha hecho bien este año.”

Barandiaran andreak, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Nik ez dut esan dena ondo egin dugunik, bakarrik esan dut zuk esan duzulako berdintasunari lotutako gaietan zoriondu egin gaituztelako gaur ekarri ditugun proposamenekin. Hori oso urruti dago dena ondo egitetik. Ez dut uste udal gobernu honek esan duenik inoiz dena ondo egiten dugunik. Eta egia da, aurtan ezin izan diogu Gizarte Zerbitzuetako Saisetia horri erantzun.

“Badakizue. Bueno, bagoaz jada bi urte Gizarte Zerbitzuetako sailean etengabeko aldatetekin, ezegonkortasun egoera batekin. Eta hala eta ere, uste dut oso egoki betetzen ari direla euren lana. Ezin izan delako programa bat atera, eta ados nago zurekin, oso garrantzitsua da gaia. Egia da beti, egin dela 2019tik. Hurrengo urtean, ziurrenik beste momentu batean egongo da saila eta helduko diogu. Horrek ezin du jarri ezbaian udal honek zaintzarekiko daukan konpromezua.

“Adierazpen instituzionala ez dugu egin, programa ez dugu atera, baina ari gara zaintza mahaiarekin. Bueno, zaintza mahaia osatu dugu, zaintza mahai politiko-teknikoa, herritarrekin beste zaintza mahaia. Azaroaren 8an bagoaz zaintzaren inguruko azoka bat egitera. Beraz, ez jarri ezbaian zaintzarekin daukagun konpromezua.”

Alkain jaunak, erantzuten du:

“Bueno, el compromiso se demuestra con los hechos, con lo que se hace, con lo que no se hace, y ha quedado claro que en esta ocasión no se han hecho bien las cosas, por supuesto, nosotros ya lo venimos repitiendo más de una vez, no ponemos en duda el trabajo de servicios sociales, pero sí el liderazgo del equipo de gobierno para poner en marcha y seguir haciendo cosas que se venían haciendo bien y desde



hace tiempo.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, uzten badidazue pixkat tensioa jaitsiko dut. Eta ja ke zerbitzutako zinegotzia indar askokin etorri dan, aste hontan gure zinegotzi bati kasualidadez tokatu zaio, Makaldegi ondoko inguru hortan, barredoreakin inzidente bat izandu da. Barruko piezaren batek su hartu du. Extintoreekin hantxe ibili zineten denak laguntzen. Antza kalteak ez omen dira larriak.

“Bertan komentarioa atera zen. Bueno, tranquilos que el Ayuntamiento de Andonia tiene la nueva barredora.

“Dijimos. Bueno, la nueva barredora, ekainean bai, presa asko izan genun kreditua jartzeko. Klaro, ekaina, uztaila, abuztua, iraila, urrian gaude jada. Galdera da, Olentzero etorri baino lehenago lizitatu behar baldin badegu, ze egoeratan daude pleguak? Zein da asmoa? Ze efektibamente, hurrengo urtean jada gure baldintza ekonomikoak zorrotzagoak izango dira. Plan ekonomiko-finantziarioak, maileguak, muga askoz ere gehiago jarriko ditugu. O sea, gaurko saio honetan dejavú asko izan ditugu iraganera, ez?

“Barredora da, nik uste dut, uno de los dejavús que siempre vuelve, siempre aparece urtero-urtero. Eta oraingo honetan benetan izango ote da? Ze egia da, komentario inozo bat izan zen, eta ekainean saldu genuen San Juanen atari hartan, plenoan, barredora, behingoatik, orain bai, aurrera zijoala eta jo, ba jakin nahiko genuke. Zergaitikan, ez den oraindik lizitazio hori martxan jarri eta plegua nola doan? O, ze asmo dagoen? Ulertuta urtea bukatu baino lehen lizitatuta behar lukeela, bestela diru hori galdu egiten da. Eta kasu honetan jada ez dago orain arte bezalako erreztasunik, Udalak beste baldintza ekonomiko batzuk izango dituelako.”

Fondón jaunak, Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai. Bueno, esan dezun bezala, gaur etorri naiz, baino bueno, informazio guztia badaukat. Egia da, tamalez, aurreko legegaldian hor esertzen nintzenean eta hemen zegoen zerbitzuetako zinegotzia, ematen zuen barredora hori bazetorrala jada. Orduan, ez dakigu zergaitikan atzeratu dan, eta esan dezun bezala, aurreko legegalditik dijuu atzeratzen. Orain esan dezaket pliegua bukatu dela aste hontan. Orain hurrengo pausoak eman behar dira eta espero dugu, lehenbailehen eukitzea barredora hori. Plegua bukatu dago.”

Berriro, Goenaga jaunak, hartu du hitza honakoa esateko:

“Aurreko legegaldiko erreferentzia ondo dao, baina aurreko legegaldian, ustet badakizula zuk oso ondo, ez zegoela barredora bat tamaina zeukana kale konkretu batzuetatik pasatzeko. Dagoeneko bi urte daramatzazue, bi modifikatibo kredituekin barredora hori lizitatzeko. Beraz, oso ondo dago gogoratzea etengabe iraganekotaz, baina norberak ere ardurak hartu behar ditu eta dagoeneko 24 hilabete daramatzazue. Beraz, galdera egin dut sinzeridade osoz. Ze ekainean presaz, presaz, korrika eta presaka, grua, garabia, barredora, inbertsio batzuk jarri genituen, eta egia da kredito hori ez dagoela hilebetean erabilgarri, ze esposizio publikoa egin behar da eta hori dena. Baina joño, uztaila pasatu da, abuztua pasatu da eta ja gaude, urrira goaz. Horreatik galdetu dut, ze urte bukaera honetako jada bi hilabete gelditze zaizkigu apenas.

“Ulertzen dut orduan hurrengo batzordean izango dugula eztabaidagai eta hori jakin nahi genuen. Ez zen malaletxearekin indako galdera, baizik eta zan, modifikatiboa, aurkeztu dezuten modifikatiboa hori noiz ejekutatuko da? Hoixe zan.”

Fondón jaunak erantzuten du:

“Eta ez dut gaizki hartu, ez nuen esan, esan nuen herritarrentzako, hemen entzun zuten, aurreko legegaldian ematen zuen barredorea bazetorrela jada. Hori da esan dudana. Bukatu da plegua eta hurrengo pausoak emango dira orain hurrengo asteetan.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Sí, muy buenas tardes. Bueno, hace unos días hemos conocido, hemos visto que se ha producido un desalojo en una vivienda de uno de los portales del ámbito de Etxebarrieta y, al hilo de eso, y teniendo en cuenta de que el ayuntamiento ya ha concedido licencia a la propiedad para el derribo de varios de los portales y teniendo en cuenta de que todavía sigue residiendo gente en ellos, queríamos saber si el ayuntamiento ya conoce cuándo se va a proceder a esos derribos y si esas personas, esos ciudadanos, ciudadanas que siguen residiendo en esos portales, si la propiedad ya ha gestionado, pues ha hecho las



gestiones de realojo si corresponde y demás. Eskerrik asko.”

Alkate jaunak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Bueno, ezin dizuet esan data zehatza. Ezin dut publiko egin nahi baldin ba duzu gero bilera bukatzean esango dizut, baina ezin dut publiko egin, batez ere segurtasunagatik esaten digutelako. Komeni da data zehatza ez esatea.

“Behin hori esanda dakizun bezela, 13, 11 eta 9 zenbakiko eraikinak botako dira lehenengo fasean. 13an familia bat bizi zen, nun promotoreakin daukan akordioaren baitan, beste herri batera joango dira, horrela adostu dute.

“Bederatzikoa ere jada aldatu dute eta lehenago eta hau da, hor daudenak berez denak daude akordio batea iritsita. Pasa den astean desalojatu zuten familia hori edo, zazpikoa zen, eta izan zen ordu batzuk lehenago okupatu egin zutelako.

“Etxearen jabeak salaketa jarri zuen eta epaileak urgentziazko prozedura bat abiatu zuen. Zazpian izan zen eta ordu gutxi zeramatzan familia horrek.

“Orduan, 13, 11 eta 9an, horko etxe jabe guztiek eta bertan bizi direnekin jada bideratuta dago gauza, eta are gehiago, pasa den astean, guk jada hurrengo fasean 7 eta 5 zenbakiko eraikinak eraitsiko dituztenez, gu aritu gera, daudelako bi famili 7an eta 5ean bizi direnak, bi famili eta beraien egoera zein den eta nola bideratu. Jada hitz egin dugu jabeekin edo promotorarekin.”

Verdasco jaunak jarraitzen du esanez:

“La pregunta a ver, es porque a ver evidentemente entiendo que como todos los que estamos aquí nos preocupa mucho la situación de ese ámbito, el grado de degradación que tiene y el hecho de que se estén tramitando licencias de derribo, incluso una ya esté concedida, pues, sabiendo, digamos, la dilatación que tienen los procesos administrativos, sobre todo en el área de urbanismo, el hecho de que ya tengamos concedida esa licencia, pues desde el grupo municipal socialista nos gustaría que fuera mayor celeridad, sobre todo por la degradación de los edificios, siempre y cuando que aquellos propietarios o residentes de los edificios pues tengan garantizada o al menos negociada con la propiedad, pues el todo el tema del realojo. Eskerrik asko.”

Jarraian, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai. Bueno, para terminar, en junio se aprobó por modificativo de crédito una partida presupuestaria de 100.000 euros para arreglar, para reparar toda la zona urbana de Trentxiki.

“Hemos pasado, hemos visto y nos está diciendo la gente igualmente, los vecinos nos trasladan que sigue bastante peligroso. Llevamos ya bastante tiempo, tenemos crédito. En junio se aprobó el crédito, entonces queríamos saber, entendemos que desde el área de servicios se está trabajando ya en el pliego, porque entendemos que por el importe y por la magnitud del daño se está haciendo, va a través de un pliego, que planificación tienen, qué plazos tienen y ¿cómo van, cómo va ese ejercicio?”

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obra, Ingurumena eta Landaguneko Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Zerbitzutako teknikariak aurrena, memoria oso mardula egiten egon dira banan-banan ikusten puntu guztiak eta zer den egin beharreko guztia. Bai landaredia, mobiliarioa eta aldatu beharreko guztia.

“Eta behin, memoria hori bukatuta, kontratazioak martxan jarriko dira. Espero dute kontratu txiki bidez egin ahal izatea, anbato bat izan arren, oso gauza desberdinak direlako, poda bat edo mobiliario berria jartzea, edo beste igeltseritza lan batzuk edo egon daitezkeen lan desberdinak. Hau martxan jarrita, hasita dagola esango nuke eta joango gara urtea aurrera doan bezala, gauza gehiago martxan jartzen.”

Alkain jaunak esaten du:

“Vale, Bueno, insisto, entiendo que existen también las licitaciones por lotes. No tiene que ser por contrato menor. Cabe esa posibilidad. No sé si el equipo de gobierno lo conoce, pero bueno, se lo recuerdo, y realmente lo que le hemos pedido son plazos. Si tenemos plazos, yo los procedimientos los conozco. Necesitamos saber plazos.”

Usandizaga andreak erantzuten du:

“Ba espero dugu urtea bukatu aurretik ahal dan guztia, egotea konponduta baino ezin dizkizut plazo zehatzak eman, guztiarena, baino bai martxan jarrita dagola guztia. Eskerrik asko.”



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2025/09/25

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 25/09/2025

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:
“Bueno, ba eskerrik asko. Eta aste ona izan denok.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 20.11 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria

